

ZAZPI ETXE FRANZIAN
B. ATXAGA

Azken boladan euskaraz irakurri ditudan liburuen artean literarioena dela esango nuke. Eleberria oso ona da, eta dena dago garatuta naturaltasun handiz. Funtsean, hori da liburu honen gakoa: bertan dena gertatzen da naturaltasun handiz, bai eleberria bai egilearen prosa. Giro urrun eta exotiko batean (Kongo belgikarra, kolonialismoen garaian) kokatuta egon arren, egileak inongo “dokumentazio-erakustaldi historikorik” egin gabe –idazle pedante, jasangaitz eta irudimen-huts askok jokatu ohi duten ez bezala–, Atxagak datu orokor nagusiak atxiki eta hortik aurrera bere istorioa garatzen du. Konkista militar horretako protagonista militarren ikuspuntutik kontatutako istorioa da gainera; nire ustez, horrek areagotu baino ez ditu egiten Europako mundu ustez zibilizatuko herrialde handinahi eta basatiek egindako ekintza bidegabe eta ankerrak; izan ere, besteren herrialdeetako aberastasunak eskuratu nahirik, zapalkuntzako sistema kolonialak ezarri baitzituzten bi aldiz pentsatu gabe, zapalkuntza hura gauzatu zutenen aldetik erabateko miseria morala eta giza ezduintasun itzela erakutsiz, bai Afrikan bai beste edozein kontinentetan, eta batez ere Europatik ekina beti. Azkenik, gustatu zaidan beste gauza bat “zortzigarren etxea”ri buruzko ustekabea izan da; azkeneko etxea da, finean heriotza irudikatzen duena. Eta orduantxe ohartzen zara “zazpi” zenbakia (“Zazpi Etxe Frantzian”) ez dela kasualitatea, zazpi etxe horiek Atxagaren imajinarioan euskal nazioaren zazpi lurraldeak irudikatzen dituztelako, eta zortzigarren etxea haietako azkena da, amets politikoez harantzago eta anbizio nazional bidezko eta zilegiez harantzago, denon zain daukaguna: zortzigarren etxea, heriotza, non gainerako zazpi etxeek azken batean euren benetako transzendentzia hartuko baitute, hau da, goizago edo beranduago zortzigarren etxean harrapatuta bukatzen duen amets baten parte izatea. Ez dakit Atxagak modu inkontziente batez iristen den amaiera horretara, edota noraino zekien horraino iritsi nahi zuela. Kontua da hor bukatu duela. Eta hori egilearentzat are goresgarriagoa da, frogatzen baitu sortze-prozesua senez eta barru-barrutik garatzen dakiten horietakoa dela, hau da, ez duela obra gehiegi intelektualizatu behar. Labur esanda, Bernardo Atxagaren eleberri on bat.